

MUSIKA. Bilboko zein kanpoko talde eta artista ezagunek parte hartuko dute ekitaldian



XOUSE SIMAL

Bilboko Orkestra Sinfonikoak parte hartuko du *Musika-Música* jaialdian.

Bilbo musika klasikoaren hiri bihurtuko da martxoan

Urtero Naoneden egiten den jaialdiari jarraikiz, 36 kontzertu jasoko ditu etenik gabe

Estibalitz Ezkerra | **BILBO**

Orain dela zazpi urte, musika klasikoa jendearengana hurbiltzeko xedearekin Naoned (Bretainia, Nantes) hiriak *La fousse journée* izeneko programa jarri

zuen martxan. Proposamenaren arabera, bi egunetan zehar eta etenik gabe, orkestra zein artista ezagunek konpositore ezagun baten piezak joko zituzten. Lehendabiziko saio hark 15.000 lagun biltzea lortu zuen,

ekitaldia jaso zuen Kongresu jauregiaren dimentsioak kontuan harturik nahiko kopuru apala. Hala ere, orduko hura hasiera besterik ez zela-eta urtero urtero plan bera antolatzea erabaki zuten. Eta denborak arrazoiak eman die: iaz Frantziako zein inguruko herrialdeetako 90.000 musika zale gerturatu ziren Naonederan.

Bestalde, behin egitura juridikoa eskuraturik, *La folle journée*-ren hurrengo urratsa bere eskaintza beste herrialde batzuetara zabaltzea izan zen. Orain dela bi urte Portugalek Naonedeko erakundearekin hitzarmen bat sinatu zuen, eta orduz geroztik Lisboak urtean behin


La festa da musica antolatzen du. Aurten, berriz, Bilbori ego-kitu zaio zirkuituko hirugarren hiri bihurtzea. Udalak pozez hartu du Naonedekoen oniritzia, hiru urte baitzeramatzaten akordio horren atzetik. Gainera, azken urteetan musikaren nazioarteko egunaren inguruan antolaturiko kontzertu maratonek agerian utzi zuten Bizkaiko erakunde publikoek halako ekimen bat antolatzeko gogoia eta borondatea eduki bazeukatela.

Musika-Música leloarekin, martxoaren 2tik 3a bitartean Bizkaiko hiriburuak 36 kontzertu eskainiko ditu. Emanaldiak Euskalduna jauregian izango dira, ekitaldirako preseski atonduko diren bost aretotan —entzungela nagusia barne—, hain zuzen. Parte-hartzaileei dago-kienez, bakarlari, ganbera talde zein orkestra ezagunak bilduko ditu musikari zuzenduriko jardunaldiak. Horiek guztiek Mozart eta Haydnen piezak joko dituzte, Naonedeko jaialdiak erabakita horiek izango baitira aurten omenduko diren konpositoreak.

Musika ororen gainetik

Larunbateko arratsaldeko bostetik hasi eta igandeko gaueko hamarrak arte. Bilbo musika klasikoaren topagune bihurtuko da. Bilboko Orkestra Sinfonikoa, Akitaniako Orkestra Nazionala, Ingalaterrako Chamber Orchestra, Bilboko Koral Elkar-tea, sopranoak, baxuak, ganbera musikako laukote zein hiru-koteak... Dударik ez dago kalitate aldetik, *Musika*-k zer esana emango duela. Sarrerak jada salgai daude bi preziotan: 3 eta 6 eurotan, beti ere kontzertuaren arabera. Antolatzaleek diotenez, lehen hitzordu honetan 10.000 lagun biltzea lortuko balute pozik geratuko lirateke.

LAGURAEAN



X. REV / EFE

Michael Nyman.

MUSIKA

Michael Nymanen Donostiako kontzertua maiatzera atzeratu dute

Michael Nyman pianista eta konpositoreak martxoaren 9an Donostiako Kursaal auditorioan eman behar zuen kontzertua maiatzaren 23ra atzeratu da, Kursaal Fundazioak atzo jakitera eman zuten. Lan kontuak direla eta, Nymanek ezinezkoa du martxoaren 9an Donostian egotea. Kontzerturako sarrerak gaur bertan jarriko dira salgai.

ARTEA

Artium museoak bere web orria jarri du martxan

Artium museoari buruzko oinarritzko informazioa, haren helburuak, ondare artistikoa eta arkitektonikoa, datu praktikoak eta jardura egitaraua ezagutarazteko web orrialde bat zabaldu du Gasteizko arte garaikideko museoak, www.artium.org helbidea. Artea «euskal gizartean ez ezik, eremu global batean ere txertatzeko bide gisa» aurkeztu zuen Javier Gonzalez de Durana Artiumeko zuzendariak web orrialdea. Diseinuaren sinpletasuna nabarmendu zuen, «herriarren zerbitzura jarritako tresna izan nahi baitu, ez arte lan bat».

LITERATURA

Bertol Arrietak irabazi du 'Goienkariak' antolatu amodiozko gutunen lehiaketa

Bertol Arrieta zarauztarrak irabazi du *Goienkaria* aldizkariak antolatutako amodiozko gutunen lehiaketa. 450 euro, afari erromantiko bat eta hoteleko suite batean larunbat gau bat pasatzeko aukera irabazi ditu Arrietak. Epaileek gutunaren «fresko-tasun eta naturaltasuna» nabarmendu dute, hala nola euskalkiaren erabilerak ematen dion sinesgarritasuna.

ANDOAIN

Takolo, Pirritx eta Porrotx Pailazoek aurkezten dute "AUPA KINTXO"



Otsailaren 17an igandea • 18:00etan
ALLURRALDE KIROLDEGIAN

SARREREI BURUZKO INFORMAZIOA 943 300823 TELEFONOAN
Antolatzalea: ANDOAINGO UDALA. Urigain Kultura Etxea.



Txantxo jantziak, algara,

adar jotze eta txantxa

zeinek ez du gogoko

inauteritako martxa



Tolosako Udala